

## **ARRASATEKO EH BILDUK KATALUNIAKO ERREPUBLIKA AITORTZEA ESKATUKO DU BIHARKO UDAL PLENOAN**

Arrasateko EH BILDUrentzat une historikoak ari gara bizitzen Kataluniako herriaren askatasunaren aldeko determinazio irmoagatik. Espainiar errepresioari aurre eginaz urriaren 1ean egin zen erreferendumaren emaitzak aitortu ostean, urriaren 27an Kataluniako parlamentuak kataluniar errepublika aldarrikatu zuen.

Ostean etorri den oldarraldi errepresibo eta antidemokratikoa Konstituzio Espainiarraren 155. artikuluan oinarritzen da batik bat. Espainiar gobernuak Kataluniar gobernu eta parlamentu legitimoak kargugabetu ostean, Espainiar epaileek hainbat kontseilari eta militante kataluniar espetxeratu ostean, inoiz baino beharrezkoagoa da kataluniarrek hautaturiko bideari babesa ematea. Hau dela eta, Arrasateko EH BILDUK mozioa sartu du Arrasateko Udalak ere babesa adierazi diezaion kataluniar errepublikari eta demokratikoki kataluniarrek hautatu duten bideari.